

## RUDOLF DE RIJK, ETTY HILLESSUM BI HOLANDAR MATTAGARRIAK

Rudolf de Rijk 1937-3-24/2003-06-15 Amsterdamen jaioa, bertako Unibertsitatean Matematika, Fisika eta Astronomia ikasketak eginga, baita Hizkuntzalaritza ere. Gero arlo hau gehiago sakondu nahirik Estatu Batuetara doa Massachussetsera Chomsky eta bere inguruko hizkuntzalari ospetsu batzuen artean. Ondoren Chicagoko Unibertsitatean 1972an euskarazko erlatiboari buruzko tesia aurkezten du. (*Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*) Bestalde hizkuntza asko zekizkien bere kasa ikasiak. Bere lan sorta bat ikus daiteke *De lingua Vasconum: Selectd Writings, Suppl. ASJU, XLIII. EHU 1998 argitaratua*<sup>1</sup>. Azken urteetan irakasle zegoen Leidengo Unibertsitatean, Hizkuntzalaritza konparatuko Departamenduan. Tarteka noiz-nahi agertzen zitzaigun Euskal Herrian.

Etty Hillesum 1914-01-15 Middelburgo Holandan jaioa, jua, 29 urterekin 1943an Auschwitz desagertua, bere guraso eta anai txikienarekin. Zuzenbide karreran doktoratua Amsterdamen, filosofia eta literaturan iaioa, hizkuntzez arduratu: frantsesa, errusoa eta alemana zekizkien eta holandesa jakina. Errusoko klaseak eman izan zituen bizimodua ateratzeko.

---

<sup>1</sup> Informazio zabalagoa jakiteko ikus Xabier Altzibarrek *Berria* egunkarian argitaratu duen artikulua 2003-06-28 *De Rijk, Holandar Euskalaria*

Aita Amsterdamen jaioa, irakaslea, Deventerreko Institutuan, ama errusiarra. Bere egunariaren zati batzuk 1981eko urtean Amsterdamen eman ziren argitara lehen aldiz eta 1986an egunari osoa, (800 orrialde) Geroztik teologo, filosofo eta psikologo andanak aztertu dituzte neska gazte honen idazkiak eta 1989an argitara eman. Hogeita lau dira guztira ikerketa horiek, holandesez, (235 orrialde). Gaztelaniaz daude nik irakurri ditudan hiru liburuak<sup>2</sup>. Bere mezuaz kanpo, adituek neerlanderazko literaturan goi mailakoa jotzen dute. 1988ko urtean Erroman *Symposium Etty Hillessum* ospatu zen. *Etty Hillessum* izeneko fundazioa ere lanean dabil..

Benetan maitagarriak biak, Rudolf aurrez-aurre ezagutua aspaldidanik, Etty berak idatzitako egunariaren eta gutunen bidez. Bihotz onekoak, maitasun zinezkoa darie biei, honen ondorioz, hurbiltzean, gozotasun xarmangarria sumatzen zaie. Holandarrak biak, barrengo indar jainkotiarrez sendoturik zeudenak, pertsonok daramagun indar hori, biek gauzatu zuten ederki asko eta kontzientzia horretan bizi. Honela ikusi dugu Rudolf bai bere bizitzan eta azken aldian gaixotasunaren aurrean izan duen ausardian; jainkozko jarrera, eramankortasuna eta adorez betea azaldu zaigu, nahiz eta jakin korputzeko bizia murriztuta zeukala. Etty judua izanik eta eraso gogorak jasan, bere baitan zeraman jainkotiar indarra zela medio, bizitzari irripartsu begiratzen zion une gogorrenetan ere. Hemen antza handia ikusi dut bien artean eta honek bultzatu nau biak erkaizteko gogoia eta are gehiago herrikide izanik.

Rudolf: Ni baino iaiogoak asko daude hizkuntzalari gisa zenuen maila goraiatu eta neurtzeko, nik beste lehiatila batetik begiratu nahi izan dut zure bizitza. 2002ko abuztuan, zure gaixotasunaren berria adierazteko agur gisa, egin zenidan gutune-

<sup>2</sup> Etty Hillessum, *Un itinerario espiritual*. Egilea Paul Lebeau. Ed. Sal Terrae 2000. *Etty Hillessum, El corazon pensante de los barracones*. Cartas. Edi. Antropos 2001. *La chica que no sabía arrodillarse*. Egilea Daniel Camarero 2002. Edit Monte Carmelo

an 1969. urtetik gutxienez ezagutzen garela diozu. Bai 1969an Donostian oparitu zenidan liburuan *Nuevo Catecismo holandés para adultos*, hor ikusten dut zure idazkian 1969 azaroaren 30ean jarri zenuela. Geroago 1970-1971 Chicagotik eta Massachusetik egiten zenizkidan gutunak ikusi ditut, zure tesirako behar zenituen erantzunen bila zenbiltzalako.

Geroztik egin ditugu hamaika solasaldi, ibilaldi, bazkari eta kantu, Euskal Herrian gehienetan, behin Holandan zure etxean egin nuen egonaldian, zure emazte Virginiarekin lagunarte ezin hobean. Noiznahi telefonoz nire euskarazko gaitasunean hau edo hori nola esaten nuen jakiteko.

Hasieran nitaz baliatzea ezin nuen ongi ulertu, baita behin baino gehiagotan adierazi ere, ni baino jakintsuagoak euskara mailan bazeudelako eta zure ezagunak zirenak: Mitxelena, Altuna..... eta abar luze bat. Baina zuk, gauza askoren artean, herriko erabilera ahozkoa jakin nahi zenuenez, ohitu nintzen zure galderei nire gaitasunetik erantzuten, ama-hizkuntza euskara izan dugunon erantzuna nahi zenuen. Ondoren eginen zenituen euskalkiei begiraturaz, syntaxian, morfologian, esanahian eta abar azterketa sakonak, beste askori galdetuz eta zure jakintzaz baliatuz. Hor daude zure ikerketak lekuko.

Beti zen atsegina zurekin egotea, hitz egitea; jakinduriaz betea eta batez ere apala ikusten zintudan, zenekiena besteei erakusteko gogo bizia eta dohain berezia zenuen. Eta hau guztia aurrean zenuenaren mailara egokitua, hau da, ez dadila izan kategoria desberdinen arteko harreman hotza, inondik inora ez, bihotzetik bihotzera elkartzen duen hari fina erabiliaz baizik. Zerbait erakusteko eta adierazteko sena denok dugula sinestaraziko zenion aurrean zenuenari, edonorekin eroso sentitzea ahalmena barreiatzen zenuen.

Askotan hitz egin izan dugu pertsonaren baitan dagoen sakoneko arazoez eta indarrez, nik nire aldetik egiten nituen bi-deak aipaturaz: A. Blay, Zen, Taichi, Taoismoa, Lao Tse..... zuk ere gustokoa baitzenuen azken hau. Baina ez zintudan inoiz



entzun, izan zenuen esperientziaz eta txundituta gelditu nintzen lehengo urteko abuztuan agur gisa egin zenidan gutunaren ondoren nire erantzuna bidali eta gero telefonoz esan zenidana: *orain dela 30 urte izan nuen esperientzia bat eta ziur naiz Jainkoaren maitasunaz bilduta gaudela eta trunkil nago; Jainkoaren grazia bat izan zen, hori izan ez balitz depresioaz bil da nengoen*. Ni harri eta zur gelditu nintzen hau entzutean.

Zuk nonbait hori zure bihotzean sarturik zenuen baina ez zenuen hitzez adierazten, zure bizitzak eta jokatzeko erak hitz egiten zuen. Askotan espiritualki, nolabait esateko, hain hanka motz aurkitzen garen une honetan, zuk benetako irakaskuntza ematen zenigun.

Batzuk honelako esperientzia izan eta gero idatzi izan dute, eta nik nire ausardian eskatu nizun zurea idaztea, baina antzeko esperientzia izan dutenen fotokopien idatziak bidali ere, baina uste dut zure apaltasun senak ez zintuela bultzatu idaztera, beharbada zure gaixotasun egoerak ere ez, halako zerbait sumatu nuen beste batean telefonoz hitz egitean, eta hortxe gelditu zen dena.

Xabier Altzibarrek idatzitako artikuluan, *Berria* 2003-06-28, jakin nuen zerbait gehiago, baina gustora irakurriko nuen zeorrek horri buruz idatzitakoa. Hala beharko zuen, esperientzia horren informazio idatzirik ez, baina hemen izan dugu zure bizitza deigarria. Hain zuzen ere azken aldiko zure jarreran Goi argiaren kutsua eta pertsonen baitan dagoen sakoneko aberastasunekin topo egitearen usaina hartzen nion, hauek argiturik hobekiago ulertu dut zure bizitza eta gertakari hauen bidez lotzen zaituztet zu eta Etty Hillesum. Honek ere zailtasun handienetan, horrelako indar baten jabe zela, argi adierazten du.

Azken kantu saioaldia Hondarrabian egin genuen bazkalondoan, nire laguna Beatriz, zuek senar emazteak eta nik, 2001. urteko ekainean, biziki gogoan dut. Ez genuen asko pentsatzen hain azkar gure artetik alde egingen zenuenik. Nork esan urtea ez zela pasako egoera hur osota aldaraziko zuen gertaera

jasan beharko genuela, zure gaixotasuna zela medio. Hurrengorako gelditu ginen X. Letek, Xalbador bertsolariaren heriotzari buruz egin zuen kantua ikasi eta kantatzekotan. Gehienetan zuk jakiten zenituen letrak inork baino obekiago baina hori ez zenekien. Zinta bidaltzekotan gelditu nintzen. Bidali, bidali nizun, ez dakit ikasi zenuen, nolana ere zuk hortik, zauden tokitik, eta guk hemendik kantatuko dugu.

Etty Hillesum, zu bezalaxe holandarra, Paul Lebeauk Etyren egunarian oinarriturik idatzitako liburuarekin, orain dela urte pare bat egin nuen topo<sup>3</sup>. Judutarra, beste askok bezalaxe bereak eta bi pasatua. Irakurtzean ez nuen zure herrikide zelako kontzientziarik hartu, bere ibilbide eta sakontasunak astindu ninduen. Geroago josi eta erkatu ditut zuen bizitzak eta apartekotzat jo. Banuen asmoa emakume honi buruz zuri hitz egitekoa, azkena irakurri dudana *La chica que no sabía arrodillarse* zuri bidaltzeko oharrak jartzen nituen irakurri ahala. Telefonoz deitzen zenuenean, euskarari buruz galderak egiteko, pentsatzen nuen idatzi egingen diot, baina hor gelditu da azkenean egin gabe. Gaixotasuna zela eta ez zintudan ezta ere honelako gauzekin nekatu nahi. Gogo hura hementxe beteko dut, eta bidenabar guztiz interesgarria iduritzen zaidan emakume honen berri eman, nahiz eta hemen aipamen hutsak egin.

Nik irakurri ditudan hiru liburuak bere egunarian (1941-1943) eta gutunetan oinarriturik daude<sup>4</sup>. Biziki gomendatzen ditut Etyri buruz irakurri ditudanak. Sekulako ausardia izan zuen bere bizitzan, azken aldian judutarra zelako bereak eta bi ikusi zituen, halere agertzen zuen jarrera, barruko indarra, guztia maitasunez kutsatzeko, ikaragarria zen. Amsterdamen judutarren kontseilukoa zelarik, ondoan zituenak laguntzen aparta zen, baita bere etsaiak begi onez ikusteko ere, edonor laguntzeko prest egoteaz aparte, batez ere pertsonok bakoitzaren

<sup>3</sup> Etty Hillesum, *Un itinerario espiritual*. Ed. Sal Terrae 2000.

<sup>4</sup> Ikus 2.oharra

baitan lortu behar dugun pakeaz arduratzen zen, konponbidea hor ikusten zuen eta hor landu nahi zuen bere barrena.

Hogeita hiru urtetik hogeita bederatzira egiten duen ibilbidea guztiz interesgarria da. Hogeita hiru urte zituela Amsterdamen maitale batekin bizi zen, Han Wegerin, hogeita zazpi zituela ezagutu zuen Julius Spier, judutar alemana, Holandan errefuxiatua, hau zela medio sortu zitzaion Etyri bere barrena sakontzeko grina eta sekulako eragina izan zuen bere bizitzan, gizon jakituna gauza askotan, psicoquirólogoa lagun minak bilakatu ziren. Honek esnarazi zion azken aldian zeukan Jainko presentziaren ardura eta kezka, bere baitan izaten zituen esperientzien lekuko izan nahi zuen eta horregatik idatzita utzi nahi. Hau guztia hil aurreko urtean bizi izan zuen bereziki Etyk, bere "*animaren emagina*" deitzen zion egunarian "S" agertzen den Julius Spieri, pertsonaren zirrikituak sakontzera eramán zuena.

Honelako esaldiak jaulkitzen ditu bere egunarian:

- *Nire baitan putzu handi bat dago eta putzu horretan Jainkoa dago*<sup>5</sup>.

Rudolf eta Etyren barrenean putzu hori, bizitzan maitasuna bilakatu zen.

- *Lagun burkoarenganako nire baitan dagoen maitasuna, nagoen tokian nagoela, benetako maitasun pixka bat dirdiratzen saiatuko naiz*<sup>6</sup>.

Judutarra izateagatik nahiz eta mespretxuak jasan, unerik gogorreanean ere honela zioen:

- "*bizitza ederra da*"..... "*zeren Jainkoagan sinisteak ez zaitu maskala, geldoa bihurtu behar, alderantziz baizik.*"

<sup>5</sup> *Un itinerario espiritual*, 109 or.

<sup>6</sup> Id. 103

Bai, Rudolf, zure bizitzan ere horixe ikusi dut, inondik ino-  
ra ez maskal, geldo, sakontasun benetakoa baizik. Zurekin hitz  
egin nuen azken aldiz ekainaren 11a zen eta 15ean utzi gintu-  
zun. *Ez dakit zenbat denbora biziko naizen* esan zenidan. Hitz  
hauetan nabari zen, gorputzari agur esateko unea bertan ikus-  
ten zenuela. Zure ahotsa etzen indartsua baina bai pakezkoa.  
Euskal Herriari buruz eta batez ere euskarari buruz egin ze-  
nuen ibilbidea eta zure ekintzen jarrera ez dugu sekulan ahaz-  
tuko. Mila esker guztiagatik.

Ez adiorik. Rudolf, gure artean zaitugu ez errautsak baka-  
rrik, Urkiolako santutegi inguruan 2003-06-26 barreiatu zire-  
nak, baita zure izaera eta ekintzen bidez kutsatutako usaina  
ere.

Kantuan bukatuko dut, hain atsegin zitzaigun moduan,  
Erramun Martikorenak *Kantore berri...* abesten duen doinuan:

Pertsona jator bien bizitza  
Hementxe nago idazten  
Barrengo txoko txirrikituak  
Gogoratu ta miatzen  
Buru bihotzak elkartuz gero  
Saiatuko naiz ikasten  
Bi holandarren antzera sutsu  
Maitasun printzak bialtzen  
Jakín dezagun izaten

*M<sup>a</sup> Pilar Lasarte*